

Urrikalgarriak, Hirugarren zatia, 4. liburukia, 5. atala,  
«Horizontearen zabaltzea».


“Une horretan, Enjolras-en eskua nabaritu zuen bizkarrean.  
Herritarra —esan zion Enjolras-ek—, ama, Errepublika dut nik.

“Gobernu molde logikoena eta perfektuena, Errepublika,  
gizonari bakea zaion bezalako eskubide natural antzeko bat  
zaio herriari.”

Gizarte arazoengatik inguruko iritziek errepublikar jarreretara gerturatu zuten bazirudien ere, Hugo berandu eta aldika gerturatu zen errepublikara. Errepublikarekiko atxikipena guztizkoa izan zen konbentzimendu sakonenen koherentziak errepublikar partiduarekin bat egiten zuela ikusi zuen egunean. Abenduaren 2ko estatu kolpeak berriro ere ideia honetara bultzatu du, askatasunaren, berdintasunaren eta anaitasunaren lagun den errepublikaren ideia. Errepublika unibertsalaren kontzeptua berreskuratzen du.

Konstituzioa aldatzearen gaineko diskurtsoa, 1851ko uztailaren 17an.

1853



Victor Hugo, par C. Hugo.  
©RMN-H. Lewandoski.

## ERREPUBLIKA, UNIBERTSALTASUNAREN BERME

1848ko otsailaren 24aren urteurreneko bazkaria, 1854 otsailak 28, Esanak eta Eginak, Exilioan.

Irailaren 24ak bezala, gero data handiak, datorren Iraultzak, eman ditzala aurrerapausoak alde orotara, baina ez dezala pauso bat bera ere egin atzera! Ez ditzala besoak antxumatu amaitu baino lehen! Bere azken hitza izan dadila: bozkatzeko unibertsala, ongizate unibertsala, bake unibertsala, argi unibertsala! Galde diezagutela: zer hartzen duzu zuk Errepublika Unibertsaltzat? Guk hauxe hartzen dugu. Nork nahi du? (Oihu batez – Denok!)

Hugok iraultza unibertsalaren ondorengo espirituan aldarrikatzen duen liberalismo totalak ez ditu gaur egungo politikan hitz honek bereganatu dituen konnotazio berberak. Ez da hizkuntza neokapitalista unibertsalaren parte, iraultzaren hizkuntzaren parte baizik.